

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 49/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa. Honen bidez, aldatu egiten da azaroaren 8ko 57/2012 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Saileko egitura organikoa eta funtzionala onartzen dituena

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 8ko 57/2012 Foru Dekretuaren arabera, berak onartu baitzuen Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa, Gizarte Sustapenaren Zuzendaritza zen, 2011-2015 agintaldian, berdintasun, immigrazio eta lankidetzako politiketako eginkizun eta arloei zegozkien jardunak kudeatu eta betearazteko ardura zuen zuzendaritza unitatea.

Diputatu nagusiak, uztailaren 3ko 132/2015 Dekretuaren bitartez, Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri ditu 2015-2019 agintaldirako, eta diputatu nagusiaren beraren sailerako atxiki ditu, besteak beste, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskumen-eginkizun eta -arloak.

Kontuan harturik komenigarria dela agintaldi honetan bi zuzendaritzatan banatzea diputatu nagusiaren sailaren eginkizunak kudeatzeko ardura, 132/2015 dekretu horren hamabigarren xedapen zatiko 2.1 idatz zatiak ordeztu egin zuen lehengo Gizarte Sustapenaren Zuzendaritza Komunikazio Zuzendaritzarekin.. Nolanahi ere, 2.1 idatz zati hori interpretatzerakoan sor litezkeen zalantzak direla eta, lege segurtasuneko arrazoiengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.2. artikuluan xedatutakoaren babesean, eta otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi karguen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen araubidea ezartzen duenak, finkatutako markoaren barruan, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehena. Idazkera berria ematea 1. artikulua 1. idatz-zatiari. Hona hemen nola geratzen den:

"1. artikulua. Jardun eremuak.

1. Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten ditu 2015-2019 agintaldirako, eta han xedatutakoari jarraituz, Gizarte Zerbitzuen Sailak honako eginkizunak eta eskumen arloak ditu, ondorengo artikuluek ezarritakoarekin bat etorritz:

- Hirugarren adina.
- Ezinduak.
- Haurrak eta familia.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- Prestazio ekonomikoak.
- Ordenamendu juridikoak adierazitako gainerakoak."

Bigarrena. Idazkera berria ematea 2. artikuluari. Hona hemen nola geratzen den:

"2. artikulua. Egitura.

Aurreko artikuluan adierazitako jardun arloei buruzko eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Gizarte Zerbitzuen Saila unitate organiko hauetan egituratzen da erantsitako organigramaren arabera, eta denak saileko titularrak den foru diputatuaren goi zuzendaritzapean egongo dira:

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, zeinari hauexek atxikitzen zaizkion:

- a) Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzako Zerbitzua
- b) Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzua."

Hirugarrena. Idazkera berria ematea 7. artikuluari. Hona hemen nola geratzen den:

"7. artikulua. Kontratazio mahaia.

Gizarte Zerbitzuen Sailean kontratazio mahai iraunkor bat eratzen da, sailak bere eskumen eremuaren barruan prozedura irekiaren nahiz murriztuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako.

Kontratazio mahaia hauek eratzen dute:

– Lehendakaria: Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, edo hark eskuorde izendatzen duen pertsona.

– Idazkaria: Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzuen burua, edo hark eskuorde izendatzen duen Gizarte Zerbitzuen Saileko funtzionarioa.

– Epaimahaikideak: saila ordezkatzeko bi funtzionario.

– Bi mahaikide, kontratazio organoaren aholkularitza eta kontuhartzailatza dagozkien administrazio unitateek izendatuak."

Laugarrena. Edukirik gabe uztea 11. artikulua, Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzari buruzkoa.

Bosgarrena. Edukirik gabe uztea 12. artikulua, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, horrek Arabako Foru Aldundiko Lanpostu Zerrenda eguneratzea eragotzi gabe, eguneratu behar izanez gero.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ